

BEREZKO FISKALITATEA

Zergak biltzeko ahalmena

- Arabak **berezko Foru Ogasuna** du, bildutako zerga guztiak kudeatzen dituen, aduana zergak izan ezik.
- Arabako parlamentuak bere zerga legeak onartzen ditu, beste edozein herrialdek daukan antzeko burujabetza baliatuta.
- **Autonomia fiskal** horri esker, Arabak **neurri ekonomikoak zein zerga arlokoak** ezar ditzake lurraldeko ekosistema ekonomiko propioa ezartzeko, eta ekosistema hori modu orokorrean lotuta dago.

"Ziurgabetasunik ez"

- **Zerga arloko ebazpenak**: Arabako Foru Ogasunak ikuspegi juridikotik loteslea den eran erantzun egiten die enpresak edo norbanakoek egiten dituzten kontsulta guztiei.
- **Aurretik ordaintzeko proposamenak**: Auzi konplexuen kasuan, Arabako Foru Ogasunak konpromisoa hartzen du ziurtasuna emateko zerga onurei eta tartean diren beste zerga elementu batzuei buruz.

Gertutasuna eta arintasuna

- Arabako Foru Aldundia administrazio arinagoa eta solidarioagoa da, Foru Ogasuna herritarrengandik gertu dagoelako.

Zergapetze bikoitzik ez

- Arabak baliatu egiten ditu Espainiak beste herrialde batzuekin, bereziki Latinoamerikarekin eta Europarekin, zergapetze bikoitza saihesteko sinatuta dituen hitzarmenak.

Sozietateen gaineko zerga

Arabako Lurralde Historikoan, Sozietateen gaineko **Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua** aplikatzen da; Estatuan, berriz, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legean arautzen da zerga.

Jarraian, Arabaren eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) arteko konparazio-taulak jaso dira, honako gai hauei dagokienez:

- Gastuen arloko zerga oinarriaren zuzenketak
- Diru sarreraren arloko zerga oinarriaren zuzenketak
- Zerga tasak
- Zerga arloko kenkari interesgarriak
- Muga kuantitatiboak

Gastuen arloko zerga oinarriaren zuzenketak:

Kontzeptua.	Araba	ZAEA
Amortizazioa	Koefiziente espezifikoak, legeriaren arabera Oro har, ZAEARENak baino handiagoak (adb. Industria erabilerako makinak erosteko) % 20 urtean).	Koefiziente espezifikoak legeriaren arabera (adb. Makinak % 12 urtean).
Amortizazio librea Amortizazio arindua	<u>Mikroenpresak eta enpresa txikiak:</u> librea. <u>Enpresa ertainak:</u> arindua (x1.5).	Amortizazioa librea dimentsio txikiko entitateentzat. Muga , plantillaren gehikuntzari lotua.
Ibilgetu ukiezinaren amortizazioa	Bizitza baliagarria fidagarritasunez estimatu ezin bada: % 10 urtean. Merkataritza funtsa: % 12,5 gehienez urtean (muga batzuk badaude).	Bizitza baliagarria fidagarritasunez estimatu ezin bada: % 5 urtean. Merkataritza funtsa: % 5 gehienez urtean (muga batzuk badaude).
Merkataritza funts finantzarioa:	% 12,5 gehienez urtean (muga batzuk badaude).	Ez da kengarria.

Diru sarreren arloko zerga oinarriaren zuzenketak:

Kontzeptua.	Araba	ZAEA
Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak	Ez da zerga-oinarrian sartzen, baldintza batzuk betetzen badira.	% 95eko salbuespena , betiere baldintza batzuk betetzen badira.
Atzerrian establezimendu iraunkor baten bidez lortutako errentak	Ez da zerga-oinarrian sartzen, betiere baldintza batzuk betetzen badira.	% 95eko salbuespena , betiere eskakizun batzuk betetzen badira.
Aparteko mozkinen berrinbertsioa	Ibilgetuaren ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik lortutako errentak zerga-oinarrian ez sartzea posible izango da, baldin eta besterentzetik lortutako zenbatekoa berrinbertitzen bada, ondasun eta aldi jakin batzuetan.	Indargabetua 2015ean.
Diruzko zuzenketa	Zenbateko hori ez da zerga-oinarrian sartuko ibilgetuaren ondare-elementuak kostu bidez eskualdatzen direnean, tarifa espezifiko batzuen arabera, inflazioa arintzeko.	Indargabetua 2015ean.

Zerga-tasak:

Erakunde mota	Araba	ZAEA
Enpresa handia	% 24	Orokorra % 25
ETEak	% 20	Murriztua: % 23, negozio bolumen garbia 1 milioi eurotik beherakoa bada
MikroETEak	% 20	
Kooperatibak	% 19	Autonomia erkidegoak erabakitzen du

Zerga arloko kenkari interesgarriak:

Kenkariak	Araba	ZAEA
Aktibo ez-korronte berrietako inbertsioak	<p>Kenkaria: % 10ekoa aktibo ez-korronteetako inbertsioetan.</p> <p>Kenkaria: % 5ekoa hobekuntzak diren aktibo ez-korrienteetako inbertsioari edo errentarietako errentan hartutako elementuetan egindako inbertsioetan.</p>	Ez dago halakorik.
I+G	<p>Kenkaria: % 30ekoa I+G arloan zergaldian egindako gastuetan. % 35ekoa soilik ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteari lotuta badaude.</p> <p>Gastuak aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoa baino handiagoak badira, kenkaria % 50ekoa izango da soberakinaren gainean. % 55ekoa soilik ingurumen-inpaktu negatiboa murrizteari lotuta badaude.</p>	<p>Kenkaria: %25ekoa zergaldian I+G arloan egindako gastuetan.</p> <p>Gastuak aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoa baino handiagoak badira, kenkaria % 42koa izango da soberakinaren gainean.</p>
	Kenkari gehigarria: % 20koa zenbait gastutan.	Kenkari gehigarria: % 17koa zenbait gastutan.
	Kenkaria: % 10ekoa ibilgetu materialeko inbertsioetan eta ukiezinean (eraikinak izan ezik), I+Gri lotuta.	Kenkaria: % 8koa ibilgetu materialeko inbertsioetan eta ukiezinean (eraikinak izan ezik), I+Gri lotuta.
Berrikuntza teknologikoa	Kenkaria: % 15ekoa edo % 20koa	Kenkaria: % 12koa
Ingurumena hobetzea	Kenkaria: % 15ekoa edo % 35koa	Ez dago halakorik.
Lan sorkuntza	7.000 euro enplegatutako eta zergaldi bakoitzeko. Baldintza batzuk bete behar dira.	Ekintzaile eta desgaitasuna duten pertsonentzat baino ez.
Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko	% 5 edo % 15eko kenkaria, % 5 handituta mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan.	Ez dago halakorik.

neurriak
ezartzea

Muga kuantitatiboak:

Bi lurraldeetan, muga kuantitatiboak aplikatzen zaizkie erakunde batek aplika ditzakeen kenkari fiskalei:

<i>Kontzeptua.</i>	<i>Araba</i>	<i>ZAEA</i>
Muga kuantitatiboak	Kenkarien baturak ezingo du kuota likidoaren % 35 gainditu. I+G arloko muga % 70ekoa izango da, eta ingurumen arlokoa, berriz, % 50ekoa. Denbora muga: 30 urte eta hurrengoak.	Kenkarien baturak ezingo du kuota oso doitu positiboaren % 25 gainditu. Muga % 50era igoko da I+Gko kenkarien zenbatekoak kuota oso doitu positiboaren % 10 gainditzan duenean. Denbora muga: 15 urte eta hurrengoak (18 urte I+Gn eta ikerketa teknologikoan).

Iturriak:

- 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (testu kontsolidatua)
27/2014 Legea, azaroaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (testu kontsolidatua)